

Kulturaren kaxak

Hitz lodi zaleak gara euskaldunak, gustatzen zaigu politika, gustatzen zaigu estrategia, iraganean galdu omen genuena etorkizunera proiektatzea, eta hura lortzeko urratsak aurrez ondo zehaztea. Kulturen ere halatsu, kinkan dela euskal kultura, gale edo gabe egiteko unea dela, eta sarri entzuten dugu “erreferente kultural berriak” sortzeko unea ailegatu dela. Eta segidan etorriko da aipaturik, nola ez, *Ez dok amairu*; gaitz guztien sendagaia.

TESTUA | BEÑAT SARASOLA @bsarasola

Kulturaren zeraren zeraz ari garela, komeni da, nik uste, bereizketa bat behinik behin egitea. Gauza bat da sorkuntza eta bestea ondarea. Sorkuntza asimilatzen denean geratzen dena da ondarea. Ikastoletan irakasten digutena da ondare kulturala, konspiratzen ari-tzen garenean egiten duguna da sorkuntza. Bigarrenik gabe ez da lehenik (eta alderantziz), baina ez da harritzekoa gurean, kultura gutxitu-txikitu-menostu izatearen errealtatea (eta konplexua) gainetik ezin kendurik, batez ere ondare kontuekin ibiltzea kezkatutik: nola da posible nerabeek Mikel Laboa nor den ez ezagutzea? Egia da, esparru horretan ere larriki ahuldu gara azken urteotan, baina kultur esparru osoa ondarrera mugatzeak ez dakar ezer onik.

Eutsi ezinezko tentazioa da pentsatzea erreferente kulturalak planifikatu daitezkeela, diseinatu, gaur egungo gazteei euskal kulturaren ziria oharkabeaz sartzeko. Alabaina, kultur dinamikek bezala historiak erakusten digute hori ezin dela hala egin, inolako adituk, kultur mahaik, *think tank*-ek ezingo duela ezer taxuzkoa sortu. Kultur-estrategiekin gauza asko dakizkitez, nola ukatu hori; baina sortu, hori beste txakolindegia bat da. Iraganeko erreferentetzat ditugun horiek guztiak ez zirela horrela plazaratu ikustea besterik ez dugu. *Ez dok*

amairu bera, egun hain kontsentsuzkoa, hain loriatua, hain politikoki zuzena den hori, jakina da disonantzia franko eragin zuela: gitarra espainola erabiltzen zutela bateko, epelegiak zirela besteko. Eta alderantziz, ezaguna da hamarkada batzuk lehenago saiatu zela Aitzol (estrategia kultural behinena) euskaldunen kontzientzia piztuko zuen poema erdiesten Orixeren lumaren bidez. Hori izan zen *Euskaldunak* poemaren egitekoa, baina jakina da emaitza: inor gutxi akordatzeko da gaur poemarekin, unibertsitateko satitsuren bat salbu.


Batzuek pentsatuko dute akaso zein-baitoi eztabaidak kale-itsuetara eramatea gustatzen zaigula beti, eta galdetuko dute: ados, sormena, erreferente kulturalak, ezin dira planifikatu, baina orduan zer egin dezakegu? Zoriaren mende utzi dena ea sortzaile talentudunak lanean jartzen diren behingoz? Ez noski, lan handia egin daiteke; kontua da alferrikako eginahalean ez ibiltzea planifikatu ezin daitekeena fabrikatu nahian.

Bernardo Atxagak mende honen hasieran plazaratu zuen *erresonantzia-kaxa* kontzeptua. Euskaldunok erresonantzia-kaxa behar dugula zioen, bestela inork gutxi entzungo gaituela gure eremutxotik kanpo. Euskal kulturari dagokionez, badirudi EAEko egungo gobernuaren kultur politikak, inoiz-ez

-da-berandu logikari jarraituz, ildo hori indartu nahi duela orain. Bingen Zupiria sailburuak horixe jarri zuen helburu nagusienekotzat kargua hartu zuenean, lengoia ekonomizista txertatuta (inoiz ez dira falta *kontsumoa*, *industria*, eta abar), hori bai. Erresonantzia-kaxa zain dezagun, jakina, baina kulturak baditu ere beste kaxa batzuk, premia gorrian direnak orobat.

Erresonantzia egon dadin, bistan da, soinua egon behar aurrez, eta hala, *sonantzia-kaxa* ere zaindu behar dugu kultura bizi bat eduki nahi izatera. Estilo klasikoan esateko, sortzaileen baldintza materialak zaintzea, alegia, edo bestela esanda, sortzaileek bizitza bizigarri bat izan dezaten zaintzea. Horretan bai kabitzen direla estrategiak, planak, bosturtekoak, clusterrak eta bestelakoak, zeren, ondo dakigunez, ez da nolanahikoa euskal sortzaileen egoera prekarioa. Aspalditik salatu izan den kontua da, baina berriki Durangoko Azokan horrexetaz aritu ziren Maialen Errotabehera eta Ander Lipus. Planifikatu nahi duzuela, bada, baduzue zer planifikatu eremu horretan. Osatu sortzaile sare indartsu eta iraunkor bat, elkar lagundu eta sostengatzeko modukoa, produkzio erraztasunak jarri (Lipusek esan zuen, sortzaileaz aparte enpresari ere badela ezinbestez), sortzaileek beren denbora sortzeari eskain





diezaieten eta ez kontu administratibo eta enparauei, egonaldiak eta sortze-espazioak hedatuz, eta abar. Sonantzia-kaxa trinkoa osatuta, erreferente kulturalak etorriko dira, berez antzean. Jakina, politiko kudeatzaileak, publikoa dena berea dela uste duenez, esango du, “bale, baina noiz bihurtuko dut errentagarri hori guztia? Nik emaitzak behar ditut: jaialdi bat, ikuskizun argitsu bat, jardunaldi ponposo batzuk, ez-dakit-zer-lab bat, *basque*- zerbait. Komunikabideak behar ditut nire bueltan dantzan, eta zuen kaxa horiekin, jai”.

Bestea da *disonantzia-kaxa*. Gai delikatua da, botereak –administratiboak zein bestelakoek– nahiago izaten due-

lako bazter utzi. Baina kultura bizi bat disonantziak dituena da, kontsentsuen mugak auzitan jartzen dituena, kultura beraren mugak bezalaxe. Gainera, ares-tian iradoki bezala, orain erreferentetzat ditugun kultura kontsentsuzko ugari disonanteak izan ziren iraganean: *Ez dok amairu, Rock Radikal Vasco-a, Ustela eta Pott...* Eta disonantziak eskatzen duena askatasuna da, espazio aske bat sortzaileak ahalik eta modu autonomo-ean jardun dezan. Zerbait zaintzekotan, bada, eremu libre hori da zaindu dezake-tena halaber kulturako instituzio, agente, eta enparauek. Areago egun, adierazpen askatasunaren atzeraldi nabarmena du-gun garaiotan. Horrek ez du esan nahi

kultura disonantearen edukiarekin bat egin behar dugunik beti, baizik eta haren adierazpen aukera bermatu behar dela. Bidenabar, gaur egungo egoera larriaren erakusgarri besterik ez da zehaztapen horiek egin beharra.

Baiki, kulturaren esparruan ere bada-go zer planifikatu eta sustatu, baina ezinezkoa da halakorik egitea sormen-praktiken dinamika propioa kontuan hartzen ez bada. Planifikatzaileak, estrategak eta beste zenbait lagun ez dagokien lekuan muturra sartzen hasten direnean, katastrofea besterik ezin daiteke espero. Badugu nahiko lan sonantzia, disonantzia eta erresonantzia zaintzen besteren lanetan endredatzen hasi aurretik. ●



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

**TXIKITIK ERAGITEN
LORATUTAKO
UDALERRI
EUSKALDUN
GUZTIEN
IZENEAN**

ZORIONAK ARGIA!

